

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

2865

AGINDUA, 2026ko ekainaren 10ekoa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Maria Isabel Gonzalvo izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2025eko urriaren 15ean eskabide bat sartu zen Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean, Fundación Maria Isabel Gonzalvo izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko.

Eskabidearekin batera, espedientean dagoen dokumentazioa aurkeztu zen.

Bigarrenkoa.– Fundazioaren patronatuak 2025eko irailaren 1ean erabaki zuen estatutuen aldaketa, eta eskritura publikoan gauzatu zen Getxoko Elizatea den Areetan, 2025eko irailaren 25ean, Matias Ruiz Echeverria notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 739).

Erabaki horren bitartez, fundazioaren helbidearen inguruko artikulua aldatu da, hau da, 4. artikulua. Aldaketaren ondorioz, fundazioaren helbidea honako hau izango da: Leioa Etorbidea, Duplex D, 48992, Getxo (Bizkaia).

Hirugarrenkoa.– Fundazioen Erregistroak eskaeran eta berari erantsitako dokumentazioan antzemandako akatsak zuzentzeko eskatu dio fundazioari 2026ko martxoaren 27ko idazki baten bidez.

2026ko maiatzaren 20an sartu zen Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean aurreko eskritura baten eskritura osagarriari sarrera eman zitzaion, 2026ko apirilaren 24an, Matias Ruiz Echeverria notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 351) egiletsitakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau agindu baten bidez ebaztea, bat etorritik xedapen hauekin: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1.n) artikulua.

Bigarrena.– Espedienteari funtsezkotzat jotzen diren datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Fundazioaren estatutuen testu bategina, 2026ko apirilaren 24an protokolizatzeko eskriturarekin batera aurkeztutakoa (protokolo-zk.: 351), Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroak kontuan hartu beharreko azken bertsio balioduna izango da, inskribatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Fundación Maria Isabel Gonzalvo izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu honen datarekin, Matias Ruiz Echeverria notarioaren aurrean 2025eko irailaren 1ean egiletsitako eskritura publikoan (protokolo-zenbakia: 739) eta 2026ko apirilaren 24an notario beraren aurrean egiletsitako eskritura publikoan (protokolo-zenbakia: 351) aurreikusitako baldintzetan.

Bigarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Hirugarrena.— Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailburu honen aurrean, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 10a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.